



izkuntza normalkuntzaren isla ekonomian

Euskara, sektore ekonomiko gisa ...edo euskararen balio ekonomikoa

(Basque language, as economic sector
...or its economic value)



ZENDOIA SAINZ, Jose M.

Ekonomia Aplikatuko irakaslea
EHUko Enpresaritzako Fakultatea
Oñati plaza
20009 Donostia
eupzesaj@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 171-175]

Egun, gero eta gehiago dira beren produktu eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresa eta erakundeak, jada sektore ekonomiko bat osatzen dutela esan dezakegularik. Lerro hauen bitartez, euskalgintzaren garrantzi ekonomikora hurbilketa bat egiten da, eta jarduera honen errealitatearen dimentsio ekonomikoaz jabetzeko datu batzuk ematen dira aditzera.

Cada día más empresas y organismos ofertan sus productos y servicios en euskara, pudiéndose afirmar que forman un sector económico. Este trabajo trata de mostrar la relevancia económica de la actividad en euskara mediante la inclusión de datos que atestiguan dicha realidad.

De plus en plus d'entreprises et d'organismes offrent leurs produits et services en basque, formant un secteur économique. Ce travail tente de montrer l'importance économique de l'activité en basque par l'inclusion de données attestant de cette réalité.

1. **Sarrera.** 2. **Azpisektoreak:** 2.1. Komunikabideak: 2.1.1. Euskal Irrati Telebista (EITB). 2.1.2. Herri telebistak. 2.1.3. Prentsa idatzia. 2.2. Liburugintza. 2.3. Musika. 2.4. Irakaskuntza-sistema. 2.5. Helduen euskalduntzea. 2.6. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko kideen datuak. 3. **Datu orokorrak eta ondorioak.**

1. Sarrera

Euskararen normalizaziorako bideak eragin dituen ondorioen artean, hizkuntzari lotutako aktibitateen ugaltze eta hedatzea dago. Hain zuzen, euskarak leku gero eta handiagoa lortu du irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan edota kultur produkzioan, arlo garrantzitsuenak bakarrik aipatzeagatik.

Euskarazko produktuen eskaria nabarmen hedatu da azken hogeitaz urteetan, eta eskari horri erantzunez, euskaraz egindako produktuen ekoizpena, neurri batean behintzat, handitu egin da ere. Horrela, zenbait produktu eta zerbitzu euskaraz eskaintzen dituzten enpresak sortu dira, eta beste zenbait kasutan, lehenago gazteleraz eskaintzen zena euskaratzeko ahalegina egin da.

Ondorioz, gaur egun beren produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresa eta erakundearen kopurua nolabaiteko garrantzi erlatiboa lortzera iritsi dela esan dezakegu. Bestalde, enpresa hauek sortzen duten aberastasuna ere euskal egitura ekonomikoan pisu espezifiko izatera heldu da. Enpleguaren aldetik, aipa daiteke ere arlo honetan diharduen pertsona kopurua gero eta handiagoa dela. Aurrekoarengatik, esan genezake euskarazko produktu eta zerbitzuen arloa (ekoizpena, kontsumoa, enplegua,...) sektore ekonomiko gisa uler daitekeela.

Euskararen sektore hau hainbat azpisektoretan sailkatzerik dago, honako zerrenda baten bidez, esaterako:

- komunikabideak
- liburugintza
- musika
- helduen euskalduntzea
- irakaskuntzaren euskalduntzea
- administrazioaren euskalduntzea
- enpresa pribatuen euskalduntzea
- besteak

Gure helburua ez da euskalgintza oro har —bere azpiatal bakoitzean— zein egoeratan aurkitzen den deskribatzea aldagai linguistiko zein soziologikoen aldetik begiratuta, euskalgintzaren garrantzi ekonomikora hurbilketa egitea baizik.

Horretarako, ahalik eta datu fidagarrienak eskuratzen saiatu gara goiko zerrenda horretako azpisektore bakoitzaren urteko fakturazioa edota dimentsio ekonomikoa zehazteko, hala nola ekimen horiek sortutako enplegua ezagutzeko.

Ondoren, datu horien laburpena egingo dugu. Kasu bakoitzerako erabilitako iturriak desberdinak izan dira. Batzuetan datu zehatz eta objektiboak dauzkagu —adibidez, administrazioak erabiltzen dituen aurrekontu publikoak—, baina gehienetan agente desberdinek emandako datuetan oinarritu gara —fidagarritasun maila eskasagoa izanik— eta askotan ere lortu ezin izan ditugun datuetara estimazio eta estrapolazioen bidez iritsi gara, are fidagarritasun gutxiagoz, noski.

Edozein modutan ere, egin ditugun estimazioak zuhertasun irizpidez mugatu ditugu: badaezbada nahiago izan dugu esatea halako sektoreak urtean gutxienez hainbat milioi pta.ko gastuak eduki dituela, edota gutxienez horrenbeste lanpostu sortu dituela. Horregatik, eta geroago aipatuko dugun bezala, lortutako azken emaitzak ezagutzen ez dugun biderkagai batez doitu beharko dira. Honako lan hau lehen hurbilketa gisa ulertzen dugu, eta aurrerantzean doiketa egokiak kalkulatzeko saioak izango direla espero dugu.

Oharrak:

- urteko fakturazioa edota dimentsio ekonomikoa aipatzen denean, sarrera-irabazien kontuaren batura adierazi nahi da, milioi pta.tan.

- langileria aipatzen denean, sektore bakoitzak erabilitako ardura osoko lanpostuen estimazioa adierazten da.

2. Azpisektoreak

2.1. Komunikabideak

2.1.1. Euskal Irrati Telebista (EITB)

	Aurrekontua	Langilegoa
ETB-1	6846	500
Eusk. Irratia+Eusk. Gaztea		

Iturria: EITB, 1998ko txostena

Kontuan hartuz 1996ko EITBren aurrekontuak honakoak direla: EITB erakundea, 585 milioi pezeta; ETB (Euskal Telebistaren bi kateak), 11.248 milioi pezeta, eta EITB Irratia (Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria eta Euskadi Gaztea), 1.627 milioi pezeta, hau da,

aurrekontu orokorra 13.460 milioi pezetakoa izan zela, kopuru honen erdia katea euskaldunei egokitzea erabaki dugu. Honela jokatzeak arrazoiak honakoak izan dira:

- Telebista-katea bat eta bi irratia katea euskarazkoak dira, eta horrenbeste gazteleraz aritzen direnak.
- Telebistaren kasuan, programa mota bakoitzerako erabilitako diru partidak honakoak dira: Albistegiak, 2.374 milioi pezeta, Kirol emankizunak, 2.526; Barne Programazioa, 3.027; Barne Telesailak, 993; Zine eta Telesailak, 2.328. Telebista-katea bakoitzak programa mota desberdinei eskainitako denbora kontuan hartuz (adibide gisa, ETB-1ek kirol programazioari eta barne sailei arreta gehiago eskaintzen die, ETB-2k zineari eta albistegiei ematen dien artean), badirudi aurrekontua bitan zatitzea errealitateetik hurbil egongo dela.
- Telebista-kateen emisio orduak honela banatu ziren: ETB-1, 6.800 ordu (%51,4); ETB-2, 6.420 ordu (%48,5).
- EITBko arduradunek adierazten dutenez, ezinezkoa da euskarazko eta gaztelerazko kateen arteko diru-kontuak bakantzea.

Beraz, aurrekontu totalaren erdia euskarazko kateei dagokiela suposatuz, ETB-1, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea kateetan, 1996an 6.846 milioi pezeta erabili ziren.

2.1.2. Herri telebistak

	Urteko aurrekontua	Langile kopurua	Emisio orduak egunean
Arrasate TB	30	8	3,5 - 4
Zarauzko TB	?	10	1
Oarso TB	13	13	2 - 3
Xalao TB	12	3	1,5
Tipi-Ttapa TB	20	6	1
Guztira	64,5	40	

Iturria: ARGIA (Larrun digitala)

2.1.3. Prentsa idatzia

	Dimentsio ekonomikoa	Langileak
Herri aldizkariak (50)	450	100
Aldizkari espezializatuak (40)	60	50
Argia		
Euskaldunon Egunkaria	810	117

Iturria: Euskaldunon Egunkaria, aldizkaria

Herri aldizkariak dagokienean, bi iturri mota erabili ditugu datuak biltzeko: alde batetik, aldizkariak bere emandako informazioa, eta bestetik, administrazioaren informazio ofiziala. Bi bideetatik bildutako datuak erkatuz gero, honako ondorioak atera ditugu: zuzenean lortutako datuen arabera, urteroko sarrera eta gastuen kontua batez beste 14.635.000 pezetakoa izan zen aldizkari bakoitzeko. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 24 aldizkari emandako diru-laguntza batez beste 1.131.784 pezetakoa izan zen, eta ezagutzen ditugun kasuetan, subentzio hauek sarrera totalen %10 ingurukoa izaten direnez, diru-sarrera totalak 11 milioi pezeta ingurukoak lirateke —beti ere, batez beste—. Minimoetara joaz, aldizkari guztietako datuak ezagutzen ez ditugulako, 43 herri-aldizkariaren artean gutxienez urtero 450 milioi pezetako diru-kopurua mugitzen dela estimatzen dugu.

2.2. Liburugintza

Fakturazioa (Argitaletxe pribatuak, milioi pta.tan, BEZa barne)					
Urtea	Euskara		Gazteleraz	Besteak	Guztira
1994	3620	31,6%	7305	520	11445
1995	3960	33,7%	7280	520	11760
1996	2990	25,1%		8930	11920
1997	4084	34,8%		7636	11720

Iturria: Gremio de Editores de Euskadi

Precisa etxeak Gremio de Editores de Euskadi delakoarentzat egindako txostenean bertan, urtean argitaratzen diren euskarazko tituluak aipatzen dira. Kopuru hori, urtez urte, ez dator bat Torrealdairen katalogoarekin. Precisaren txostenetan Torrealdaik katalogatzen dituen liburuen laurden bat, batez beste, azaltzen ez dela ikusita, baina titulu horietako batzuk argitaletxeetako fakturazioan zenbatuak izan direla suposatuz, estimatzen dugu argitaletxe pribatuen fakturazioa, Precisaren txostenean, egiazkoaren %80koa izan daitekeela —EAEko argitaletxeak bakarrik zenbatu direlako, eta 1994-95 urteetan, adibidez, Euskal Herritik kanpo argitaratutako euskarazko liburuen portzentajea %13koa izan zen—. Honek esan nahi du 1997 urtean argitaletxe pribatuen fakturazio osoa 5.105 milioi pta.koa izan zela.

Horretaz gain, argitaletxe publikoek ekoiztutakoaren datuak gehitu beharko ditugu. Lehenago esan bezala, titulu-kopuruaren arabera ekoizpen publikoa totalaren %17'5 ingurukoa da, baina oro har tirada txikiagoko liburuak izanik ere, gastu altuagokoak izaten dira. Onetsiko dugu beraz estimazio hori, eta orduan euskarazko

liburuen argitarapenean mugitutako dirua 1997an 6.187 milioi pta.koa izango litzateke.

Langileei dagokienez, datuak zaharragoak izanik ere —1992 urtekoak, hain zuzen— Ramón Zalloren liburuan agertzen direnak aipatuko ditugu. Urte hartan, Euskarazko Editoreen Elkartean 17 enpresa zeuden, sektore honetako garrantzitsuenak, eta beren ekoizpen-bolumena 2.450 milioi pta.koa izan zen merkatu-prezioetan, zuzenean 126 lanpostu sortuz, eta zeharka, beste 330 inguru. Gogoratu behar da urte hartan 1.000 liburu argitaratu zirela euskaraz (Torrealdai).

2.3. Musika

1997: euskarazko 700.000 / 800.000 disko (CD) salduta.

Gutxienez 700.000 ale x 2.500 pta./alea = 1.750 milioi pta. fakturazioan

Iturria: SGAE

Ez dugu bestelako daturik. Dirudienez, eta SGAEk (Sociedad General de Autores Españoles) berak adierazita, Euskal Herrian egiten diren kontzertuetatik % 65a euskaraz abesten duten bakarlariek edo taldeek eskainitakoak dira.

2.4. Irakaskuntza-sistema

Hezkuntza sistemaren euskalduntzea	
UPV/EHU	200
EAEko irakaskuntza sistema euskalduntzeko	4555
EIMA	803
Guztira	5558

EAEko euskarazko hezkuntza	
UPV/EHU	6700
Unibertsitate-aurreko irakaskuntza	75000
Guztira	81700

Iturria: EUSTAT

Irakaskuntza-munduan euskararekiko bi gastu mota daude: sistema bera euskalduntzen joateko egindakoa —irakasleen euskalduntzea, bereziki—, eta euskaraz eskainitako irakaskuntza. Euskara sektore ekonomiko berezi gisa aztertzerakoan egokiagoa iruditzen zaigu lehen motako gastua bakarrik hartzea kontuan. Azken finean, euskaraz ikasten duten haurrek gazteleraz egingo lukete aukerarik ez balego, eta

irakaskuntza-sistemaren aurrekontua ez litzateke asko aldatuko. Euskarazko hezkuntza eskaini ahal izateko, ordea, sistema euskaldundu behar da eta hau da euskarak sortzen duen gastu gehigarria.

Dena den, irakaskuntza sistema euskalduna da etorkizuneko euskaldunak sortuko dituen, eta beraz, euskalgintzaren zutabe garrantzitsua da, garrantzitsuena ez bada. Horregatik, hezkuntza sistema osoan ikasketak euskaraz egiten duten ikasleen portzentajea erabili dugu jakiteko zenbatekoa diren euskarazko irakaskuntzak erabilitako baliabide ekonomikoak.

2.5. Helduen euskalduntzea

EAE	dimentsio ekonomikoa	langile kopurua
Araba	743	300
Bizkaia	3.175	886
Gipuzkoa	2.044	599
Nafarroa (IKA soilik)	110	44
Guztira	6.072	1.829

Iturria: HABE, IKA

Helduen euskalduntzean ez dira sartzen EAEko irakaskuntza euskalduntzeko programaren barnean irakasleentzako euskara-eskolak (aurreko puntuan zetorrena). Falta zaizkigu Nafarroako eta Iparraldeko AEK erakundearen datuak, baina gure kalkuluen arabera, horiek sartuta urteko gastuak 6.200 milioi pta. ingurukoak izango dira.

2.6. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko kideen datuak

	dimentsio ekonomikoa	langile kopurua
Euskaltegiak	2.281	1.347
Liburugintza eta editoreak	6.276	261
Prentsa (Egunkaria, aldizkariak)	1.534	295
Bestelako erakundeak*	22.816	4.198
Guztira (Kontseiluko kideak)	32.907	6.101

Iturria: Kontseilua.

*Bestelako erakundeak: euskaltzale taldeak, gurasoen elkarteak, euskara lan munduan sustatzeko erakundeak, zinema eta telebista ekoizleak, Euskaltzaindia, UEMA, UEU, UZEI, Eusko Ikaskuntza,...

3. Datu orokorrak eta ondorioak

AZPISEKTOREA	Fakturazioa 1998
Euskaltegiak	6.200
Komunikabideak	8.291
Liburugintza	6.000
Musikagintza	1.750
Irakaskuntza euskaldundu	5.960
Besteak	22.816
GUZTIRA	51.017

Kontseiluko arduradunek eskuan dituzten datuak jakinda, estimatu zuten kide guztien artean adierazitako 32.907 milioi pta. horiek benetan 50.000ra iritsiko zirela, horretarako zenbait irizpide erabiliz: jendaurrean publiko egin nahi ez diren datuen kontaketa, sektorearen zuzeneko ezagutza, eta abar. Guk uste dugu bildu ditugun datuekin 51.017 milioi pta.ko batura lortu badugu, antzeko zerbait gertatzen dela: alde batetik, datu guztiak ez ditugu jaso, bestalde, sektorearen ezagutza osoa ez dugu eta kanpoan utzitako agente asko egongo dira. Beldur handirik gabe, euskararen sektore ekonomikoak urtean 75.000 milioi pta. erabiltzen duela esatera ausartzen gara.

Esan bezala, datu hauek jasotakoak direnez, bidean milioi pta. asko geratu direla dakigu. Gutxienez, 80.000 milioi pta. izango direla esatera ausartzen gara, eta araututako irakaskuntza gehitzen badugu, aurreko kopurua bikoiztuko litzateke, euskararen inguruko ekimenek urtean sortutako aberastasuna 150.000 milioi pta.ra iritsiz —Hego Euskal Herriko Barne Produktu Gordinaren % 2,5etik gertu—.

Langile-kopuruak zehaztea zailagoa da. Sektore askotan ekonomia beltzaren indarra handia da (itzulpengintzan, esaterako), beste batzutan langile gehienak orduka ari dira (euskaltegietan). Kontseiluko kideek deklaraturakoaren arabera, 6.101 pertsona ari ziren lanean beren elkarteetan, baina Kontseiluak estimatu zuen pertsona horiek ardura osoko 5.000 lanpostu inguru betetzen egongo direla. Aurrekoan erabilitako estrapolazioa eginik, gutxienez 7.500 lanpostu sortzen direla lortzen da. Horri gehitzen badiogu EAEn Unibertsitate aurreko irakaskuntzan diharduten 27.000 irakasleetako % 43a (11.600), lortuko genuke 20.000 pertsona inguruk egiten dutela lan euskalgintzan eta irakaskuntza euskaldunean.